

# LIBURU BARRI TA OMENALDIAK

## *Ipuin-barreka.*

Ona emen ipuin-sail barri bat, eusdunon atsegingarri. Onelako liburuak guri, batez be, eder yakuzala esan oi da. Ta orrela izan, nunbait. Baiña ezta arritzekoa be ipuin-grña au. Gure antxiñakoak ain zaletasun bizia agertu ba'eben, porru-patatak, gazta-iñiak eta arto-esne-zukua jan ondoren, su-bazterrean kontu-kontari, lera ta oitura au ezta gurea bakarrik, munduko erri guztiak barnean daroena baiño.

Enparau izkuntzetan lez gure euskerazarrean ipuin libururik asko argitara dira mendeak zear: elizarakoak eta ipuñezkoak geienbat len eta orain. Eta ez yaku errez agortuko iturri au. irakurleari eder yakona emon bear ba'dautsogu.

Oraingo au —txit begiko yaku benetan— Aita Pelix Bilbao'k egiña dogu, oraindik Arantzazu'n ikasle zala, ta 1954'garren urtean Euskaltzaindia'k eraturako sariketan sariztua. Txukun eta dotore irarria. Aita Vllasante'k itzaurre jori bat ipiñi dautso ta Aita Iriondo'k marrazki politetz apaindu.

Guztira 50 ipuin dira bata baiño bestea barregarriagoak eta konturatu barik irakurten diranak; niri neuri beintzat au jazo yat, ezin itxi liburua eskuetatik, dana ekiñaldi baten irun-tsi bear, ardaun onaren antzera. Baiña ez dira orrela irakurtekoak be: oi-loak ura lez, tantaka ta astiro, oba.

Gure baserritar eta gaiñetikoak badabe, negu aldean batez be, apalosteko ordu luzeak nuñ emon barre-karkaraz ta gogo-nasai anditan.

*Bertsolari-txapelketa.*—Arrasti aztu-eziña, egi-egitan, joandako irail-laren bosten Bilbao Arenalean ospatua, Bizkai osoko bertsolari ernaien txapelketa zala-ta. Amaika bertso-esaldi eder ta txalo bero izan zan. Millaka euskaldun —amar millatik gora— batu ziran zelai aretan, bi-tzak pozez gaiñezka, ta etziran atzi-peturik etxera biurtu. Ez orixe!

Bertsolarien aitaita bat be an zan, guztien erdian. Nabarniz'ko artzain ta bertsolari zar Elorza jaunaren omenez zenduan batez be jaialdia Bai ta an zan Anasagasti gotzaiña be, urriñeko lurraldeetan bizita be, euskera biotz-txokorik beroenean darabilena.

Sei ditugu bertan jardun eben bertsolariak: Enbeita, Alberdi, Ormaetxe, Sardui (Deunoro), Azpillaga ta Pujana; Enbeita igaz be txapeldun geratua ta beste bostak Urkiola'n, Mungia'n, Bermeo'n, Markiña'n eta Zeanuri'n saio galantak egiñak. Enbeita'rentzat izan ziran aurten be kopa ta txapel, Zorionak berari.

Urrillaren 11'an beste ekiñaldi Durango'ko prontoi barrian, udal-aundi bat euki eben sei bertsolariok dian emen jokutzen daben pelotariak eraturako jai eder baten. Bazan txalotsa ta goraka naikoa.

O.

